

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



HERNANI ESKU PELOTA

Finala eta final erdiak, Udaberri eta Gipuzkoakoan

Asteburuko erronka garrantzitsuenei gaur egingo diete aurre pelotari hernaniarrek. Batetik, Unax Uitzu eta Unai Albeniz kadeteek gaur jokatu dute Udaberri Txapelketako finala, 20:00etan Alegin, Egiuren eta Labaka, Ilunpe talde azpeitiarreko bikotearen kontra. Bestalde, Oñatin ariko dira Auritz Txinturreta eta Aiur Elizazu infantilak, 19:30etan, Gipuzkoako final-erdian, Aloña Mendiko Altzelai eta Juaristiren kontra. ||

EREÑOTZU-ARANO EMANALDIA

Atsolorra baino lehen, Artantxuriketan

Auzo Etxean ariko dira 'Artantxuriketan' gaur, 19:00etan, Arantza, Ainhoa eta Maider Ansa ahizpa aranoarrak eta ama Maria Jesus Zugarramurdi, apirilaren 7ko ospakizunerako giroa berotzen.

ARTOA zuritzea bezalako lanak hobeto, edo, behinik behin, errazago egiten dira kantari. Ondotxo dakite hori Arantza, Ainhoa eta Maider Ansa ahizpa aranoarrek eta haien ama Maria Jesus Zugarramurdi. Gaur, 19:00etan Ereñotzuko Auzo Etxean egingo dute, hain zuzen, Artantxuriketan saioa.

Baserriko sukaldean artoa zuritzen aritzen zirenean bezala, familia eta auzokoekin bilduta arratsalde pasa nola aritzen ziren antzeztuko dute lauek, kontu eta kantu artean.

Atsolorra, apirilaren 7an

Irekia izango da gaurko saioa, eta datorrenarako giroa berotzeko antolatuta du Olak Auzo Elkarteak. Orduan, Atsolorra egingo da, azken urtean jaiotako ereñotzuarrei ongietorria egiteko. ||



Kontu-kontari eta kantari ariko dira familia giroan, Artantxuriketan.

HERNANI ZINEA

Aurreneko zine saioa, gaur gauean

Asteburuko bezala, bi pelikula jarriko dira honetan ere Biterin. Aurrenekoa gaur, 22:30etan: *Cuestión de género*. Bihar 19:30 eta 22:30etan ere jarriko da, igandean 19:30etan ere bai, eta astelehenean, 16:30etan. Haurrei zuzenduta, berriz, *Kika Superbruja* jarriko da bihar eta etzi 16:30etan. ||

HERNANI URUMEA HERRIGUNEA

Udaberri Fest gaur, DJ eta jakiek

Iluntzeko 20:30etan jarri da hitzordua gaur Urumea Herri Gunean, Udaberri Festerako. DJ Kokonautak jarriko du musika, eta afaria izango da. Era berean, hil honetako fanzinea eskuratzeko aukera ere izango dela jakinarazi dute, borondatearen truke; gaia, transfeminismoa da. ||

HERNANI KONTRAKANTXA GAZTETXEA

«Gaztetxeak saretzeko» topaketak, asteburuan

Gipuzkoako Gaztetxe eta Asanbladen Topaketak egingo dira Hernaniko Kontrakantxa Gaztetxean gaurtik igandera. Gaur mahai-ingurua izango da 18:00etan, eta 21:00etan afaria eta bertso saioa.

«HERRIZ herri garatzen ari diren proiektuak ezagutzeko» eta «herrialde mailan gaztetxeak saretzen hasteko» antolatuta dira Gipuzkoako Gaztetxe eta Asanbladen Topaketak, Hamaika haritatik soka berari tiraka lelopean.

Igandean egin zuten aurkezpena Gipuzkoako hainbat herritako gaztetxetako kideek Hernaniko Kontrakantxa Gaztetxean, Topaketak egingo di-

ren leku berean, eta gaur emango zaie hasiera. Mahai-ingurua egingo da 18:00etan, hainbat esperientzia ezagutzeko, eta afaria eta bertso saioa izango dira gero.

Egun borobilena, berriz, biharkoa izango da, egun osoko egitaraua izango baita: hainbat hitzaldi, manifestazioa, kontzertuak... Eta igandean bukatuko dira topaketak, gosari eta auzolan saioarekin. ||

EGITARAUA

Gaur, ostirala

18:00, Mahai ingurua: *Gaztetxeak saretzen, zenbait eskualdetako esperientzietatik ikasten.*

21:00, Afaia. Ondoren, gaztetxeen arteko bertso saio irekia.

Bihar, larunbata

09:00, Gosaria.

10:00-12:00, *Autogestioa.*

12:00-14:00, *Okupazioa eta Faxismoa XXI. mendean.*

14:30, Bazkaria.

15:30-17:30, Segurtasun tailerra, *Etorkinen auzia, eta Erasoak eta harremanak militantzian.*

19:00, Manifestazioa: *Gaztetxeak saretu, autodefentsa antolatu.*

21:00, Afaia.

22:00, Kontzertuak: Starlus, Eztanda, eta Bake Faltsua.

Etzi, igandea

10:00, Gosaria.

11:00, Auzolana.

ASTIGARRAGA XAGUXAR

Ludoteka bihar, kultur etxean

Xaguxar aisialdi taldeak ludoteka antolatuta du biharko. Kultur etxean izango da, 16:30etatik 18:00etara. ||

HERNANI PRESOK

Zinkoenean, zita

Hernaniko euskal preso eta iheslarien senide eta lagunek kontzentrazioa deitu dute gaur, 20:00etan Zinkoenean. ||

AITAN-ETXE TABERNA
Larramendi, 15
943 55 00 46

Gerizpe
Kafetegia-Okindegia
682 156 795
Kale nagusia 5, Astigarraga

ezkati
ileapaindegia
Iturri, 4
Hernani
943 55 65 56
Hartu ordua

ikusi-makusi
4. edizioa - MONSTER
BINGO
Oporretan ondo pasatzeko aukera aparta daukagu ikusi makusin!
facebook.com/ikusimakusi
instagram.com/ikusimakusihernani
Nagusia, 7. Hernani
843 63 04 69 634 607 099

TAXIAK: 943 550093 **UDALTAINGOA:** 943 248900 **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708
Korrea Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103
Egunez: **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022**

EGURALDIA
GAUR Temperaturak gora egingo du, eta zerua eguzkitsu egongo da, batez ere goizean hegoaldeko haizea ibiliko delako. Arratsaldean, brisa sartuko da. **Min.5° / Max.20°**
BIHAR Ez da aldaketa handirik espero. Zerua garbi egongo da berriro, eta giroa epela izango da. Arratsaldean, ipar-ekialdeko haizeak joko du. **Min.8° / Max.19°**
(euskaime)

HERNANI BERDINTASUNA

Genero eta identitate sexualetan aniztasuna, Zinegoak jaialdian

Astelehenean Zinegoak jaialdiko sei film labur ikusi ahal izango dira Biterin, 19:30etan. Hamar eta hoge minutu artekoak izango dira.

BILBOKO Gaylesbitrans Nazio-arteko Zinema eta Arte Eszenikoaren Jaialdiaren zati bat Hernanira ekarriko du Udako Berdintasun Sailak aurrean. Horrela, datorren astelehenean, hilak 25, Biteri kultur etxean jarriko dira sei film labur, 19:30etan hasita.

Sei film, sei errealitate

Zinegoak Jaialdia 16garrenez antolatuta da aurrean Bilbon, otsailaren 18tik martxoaren 3ra, eta bertan aurkeztu denetik aukeraketa bat ikusi ahal izango da Hernanin.

Sei filmetatik bost, Sail Ofizialeko Begiradak atalean estreinatutakoak izango dira. Horietatik bi, Hautzaroa eta Nerabezaroa gaiaren ingurukoak: Herbeheretako Anders film laburra eta Mazedoniako Errepublikako *Vidi ja ti nea*. Aurrenekoak nerabe problematikoa eta bakarti batek bere

Sei filmak jatorrizko hizkuntzan jarriko dira, azpitu-tuluak gaztelaniaz eta euskeraz jarrita.

kezkei aurre nola egiten dien erakutsiko du, eta bigarrenak, neska tomboy eta egoskorra izango du protagonista.

Beste film bat Emakumeak gaiaren ingurukoak izango da; Estatu Batuetako *Devi*. Indian kokatutako istorioa kontatzen du; etxeko langilearekin erakarritu sentitzen den emakumea izango da protagonista, eta Indian lesbiana izan eta armairuan bizitzeak dakarrena erakutsiko du.

Errefuxiatuak eta biolentzia gai dituen film laburra izango da ikusi ahal izango den beste bat: *Malik*, Frantziar grabatua. Ghettoa uztea

erabakitzen duen gazteak azkenean ihes egin beharko du.

Bosgarren aukera bestelako film laburren atalean sailkatu da: *Oasis*. Mexikon kokatua, kontatzen du nola Ofeliak senarra gay-en taberna batean bilatu behar duen.

Azken aukeraketa Espainian grabatutako *Nomeolvides* da, emanaldi berezien Bilgune atalean estreinatua. Bi emakume hilerrian topo egitean sortzen den istorioa kontatzen du.

Film guztiak jatorrizko hizkuntzan jarriko dira, azpitu-tuluak gaztelaniaz eta euskeraz jarrita.

'Lur' antzerkia, bihar

Jaialdi honen barruan Arte Eszenikoak ere biltzen dira, eta hain zuzen, bihar 12:00etan Biterin ikusi ahal izango den *Lur* antzezlan, umetan transexualitate lantzen duena, bertan ikusi ahal izan da. ||

HERNANI SORMEN GUNEA

Bi proiekturen berri, parte-hartze prozesuaren bigarren saioan

Martxoaren 27an, asteazkenean egingo da Sormen Gunea prozesuko bigarren saioa, Ave Maria nola antolatu erabakitzen jarraitzeko.

HIRU saiotako parte-hartze prozesua jarri du martxan Udalak, Ave Maria eraikina Sormen Gunea nola bihurtu erabakitzeko, sortzaileekin batera.

Aurreneko saioa pasa den astean egin zen, eta bertan, egun sortzaileek erabiltzen dituzten baliabideak zein diren identifikatu, eta Ave Marian zer nahi luketen zehaztu zen. Bigarren saioa, berriz, datorren asteazkenean, hilaren 27an egingo da, 19:00etan Biterin, baita ere. Besteak beste, martxan dauden Sormen Gunea batzuk bertatik bertara ezagutzeko aukera izango da, bertako erabiltzaileen ahotik.



Taldetan banatuta aritu ziren lanean aurreko saioan, parte-hartzaileak.

Parte-hartzea, irekia

Saio guztiak irekiak dira, eta diziplina guztietako sortzaileak daude parte hartzeraz gona-

bidatuta. Informazio gehiago jaso nahi izanez gero, sormen-gunea@hernani.eus helbide elektronikoa galdetu

daiteke, eta era beran, informazioa biltzeko atal berezia sortu da erabakaki.hernani.eus webgunean. ||

TAPUNTU

Izen-ematea gaur arte, ikastaro irekietan

Lau ikastaro eskainiko ditu TaPuntu komunikazio enpresak, datorren astean, Usurbilgo egoitzan

KOMUNIKAZIOAREN eta teknologia berrien inguruan, lau ikastaro ireki eskainiko ditu TaPuntu enpresak, datorren astean: GIFak egin eta sare sozialetara igotzeko astelehenean; lanerako teknika eta tresnei buruzkoa, asteartean; komunikazio plan bat nola garatu, asteazkenean; eta Microsoft Accesekin datu baseak sortze-

ari buruzkoa, ostegunean.

Ikastaro guztiak, egin daitezke 09:30etatik 13:30etara edo 16:00etatik 20:00etara. Eta horretarako, aurrez eman behar da izena. Gaur da azkeneko eguna, www.tapuntu.eus web orrian, ikastaro irekien atalean. Usurbilen emango dituzte ikastaroak, Zubiaurrenea 6an daukaten egoitzan. ||

KORRIKA

Korrikako arropa salgai bihar, kalean

Gutxi falta da 21garren Korrika hasteko, eta motorrak berotzeko, arropa-postua jarriko du AEK euskaltegiak bihar, 12:00etatik 14:00etara Kale Nagusian, Kixkal tabernaren ondoan. ||

GOIZUETA ESKU PILOTA

Bi partidu gaur etxean, goizuetarrek

Umore Ona elkarte pilotariak bi partidu jokatu dituzte gaur, etxean. Arratsaldeko 18:30etan hasita, Nafarroako Kirol Jokoen Txapelketaren barruan jokatu dute aurrea Zurutuza eta Gagarduzek, Ultzamaren aurka, eta Legarreta eta Elizegi ariko dira gero, Txarutaren aurka. ||

HERNANI OPORRAK BAKEAN

Haur sahararentzat, familia bila

Martxoaren 31ra arte luzatu da Oporrak Bakean programan parte hartzeko izen-emate epea. Helburua da saharar errefuxiatu kanpamenduetan bizi diren umei aukera ematea udara Euskal Herrian pasatzeko. Hernanira aurrean hiru ume etorriko dira, horietako bi azkenekoz. Horregatik, haurrak hartzeko prest dauden familia berriak behar dira. Informazioa eta izen-ematea: 943 33 70 17 / marijo-m@hernani.eus. ||

HERNANI KIROLA

Parkour ikastaroan izena, gaur arte

Apirilaren 3, 5, 8, 10 eta 12an parkour ikastaroa egin ahal izango dute kiroldegian, 2003 eta 2007 artean jaiotakoak, 17:30etatik 19:00etara. Izena emateko epea gaur bukatuko da. Kiroldegian edo Gaztelekuan eman behar da izena, eta 10 euroko fidantza ordaindu. ||

IRAGARKI MERKEAK

Pisua salgai Hernaniko erdigunean, 75m karratu eta bi logela. Deitu arratsaldeaz: 618 847 338

Balantxa liburutenda traspasoan, jubilazioagatik. Deitu: 676 864 407

Langile bat behar da SOLDATZAILE ETA OBRARAKO MUNTATZALEA, ahal bada esperientziarekin. Interesatuak deitu 943 690 643

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA